

# JARDUERA ETETEKO OHAR OFIZIALA

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialetik honen bidez, Eusko Jaurlaritzak atzo ofizialki iragarri zuen **osasun-larrialdiko egoeraren** aurrean, eta gaur goizean garatu den eta Lehendakariari Euskadiko Babes Zibileko Planaren (EBZP) Zuzendari Bakarreko lanetan laguntzen dion Aholku Batzordearen bileraren ondoren, guztioi zuzentzen gara egoera zail eta aparte honetan hartu duten ondorengo eskaera ofiziala jakinarazteko; **Metro eta erdi inguruko gutxieneko segurtasuna bermatzen ez duten jarduerak**, esparru pribatuan, **aldi baterako osasun jarduera guztiak eteteko**, hurrengo hamabost egun naturaletan.

EFEOtik, distantziaren mugaketa honek oso zail egiten duela eguneroko osasun jardueari eustea ulertzen dugu, erakunde honek ordezkatzan duen taldeak beste edozein motatako adierazpenetara joatea ia ezinezkoa delarik.

Duela gutxi onartutako neurria ofizialki bihar igandean sartuko da indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren. Hala ere, ulertuko duzuen itxaropenarekin, zuhurtzia, zorrotasun eta erantzukizun kolektiboaren irizpidean oinarrituta, arren berehala aktibatzea gomendatzen dugu.

Osasuna zaintzeko funtsezko eragile gisa, gai izan behar gara gure irudi onena eskaini eta mantentzeko, gure betebeharrak bereziki zorrozki eutsiz eta babes zibileko eta osasun agintaritzekin lankidetzan arituz.

Gure aldetik konpromisoa hartzen dugu gure jarduketa-politikari eusteko eta orientazio egokiak eskaintzeko, bizitzen ari garen egoera zail eta konprometitua errazago gainditzeko. Era berean, hurrengo egunetan eta asteetan intentsiboki lan egiteko konpromisoa hartzen dugu izaera fiskal eta laborala duten neurri eta politiketan eskaera ofizialak egiteko eta adostasun-lortze estrategiak ezartzeko, eta zalantzarik gabe, muturreko erabaki honek zuen ingurune profesional eta pertsonalean izan ditzakeen ondorioak ezituz.

Erabat ziur gaude krisi epidemikoaren ebazpenak berehala ahalbidetuko duela normaltasun osora lehenbailehen berbideratzea.

Amaitzeko, gure egiten ditugu Urkullu lehendakariaren hitzak:

*“Erronka honek gutako bakoitzaren onena ematea eskatzen digu. Prebentzio-neurriak gureganatu, osasun publikoa zaindu eta behar handiena duten pertsonen lagundu behar diegu.*

*Zuetako bakoitzaren esfortzua, konpromisoa eta lankidetzak eskertzen dugu.*

*Eutsi diezaiegun ekintza-batasunari eta erabakitikotasunari egoera hau gainditzeko”.*

Animo asko. Eskerrik asko!